

bidegileak



Jon Gotzon Etxebarria (1934-1996)


Egilea:

ANGEL ZELAIETA

Euskaldunekin topo

*J*on Gotzon Etxebarria Martin Santurtzin jaio zen, 1934ko otsailaren 7an, Fermin Reparaz kaleko 6an, eta 9an bataiatu zuen Bonifacio Alcalde apaizak, San Jurgi elizan. Aita Ortuellakoa (Gueñestik eta Castrotik hara joaniko familiakoa) zuen eta ama Santurtzikoa bertokoa, ama-parteko aitona Salamancatik etorria, eta amona Santurtzi bertokoa. Sendotza eliza berean hartu zuen, 1947ko abuztuaren 6an.

«Portugalete'n —diotse Kintana eta Tobarri— batxilerra hasi (bi urte) ta seminariora joan nintzan, Arteagara (Castillo y Elejabeitia) Arratia'n. Ber-



Jon Gotzon Etxebarria (1934-1996)

tan iru urte ta Gasteiz'en beste sei. [...] Zazpi anai-arreba gara eta guztiak erdeldunak, neu izan ezik. Iñortxok ez du euskeraz jakin gurean.»

Jon Gotzon zazpi seme-alabetatik (Concepción, Emilia, Begoña, José Ramón, Federico eta Mari Carmen) hirugarrena izan zen, Juan Ángel izenez bataiatu zutena. Lehen bi batxilerrak Portugaleten Anaia Menesianoek zeukaten ikastetxean egin zituen.

Arteagako Seminariora 12 urterekin sartu zen: «Hemen euskaldunak ezagutu nituen, hots, euskaraz hitz egiten dutenak». Hemen-
txe izan zuen euskararen «teofania»: «*Cum ad deambulandum*» hasierarekin (Ex., 89.IV).

Gertaera honen berri eman zien Kintana-
-Tovarri, eta ez latinezkoan bezain dotore: «Mutiko gorriak giñala, bein mendi-mendian galdu giñan Zeanuri aldean. Baserriko mutikotxua arkitu genduan. Baña arek erderarik jakin ez ta gure taldekoak euskararik ez ta an egon giñan denpora pasa, bedar gañean jolasean arik eta gure lagun euskalduna ager-



San Jurgi eliza horretan bataiatu zuten Jon Gotzon, 1934ko
otsailaren 9an

tu artean. Aretxen bidez jakiñarazo euskun baserritarrak etxerako bidea».

Arteagako abadegai «txikitik» Gasteizko «haundira» joan ohi ziren bizkaitar ikasleak, Derioko seminarioa eraiki aurretik: «*Cum iam quintum*» idatzi zuen in *Excerpta* 89-VI: «Hiru probintzietakoak biltzen gintuzten bosgarren ikasturtea hasikeran». Hemen Jose Maria Urrutia du irakasle: «[...] *magister* [...] *Latinarum*»: «latin hizkuntza eta literaturaren maisua, gipuzkoarra, euskaraz hitzegiten zekiena, eta bere jaioterriko hizkuntzaren maitale sutsua». (Ex., 89-XI).

Jon Gotzonek ironiaz dihardu, dudarik gabe. Jose Maria Urrutia hau ez zen euskaltzale: «Hogei urte barru euskara galdua da» esan ohi zuen. Aldaregia ikasleak lan eta azterketetan «Imanol» jarri ahala, Urrutia honek «Manuel» ezartzen zion aldiro. Jon Gotzonek berak «mina eragin nahian» jarduten zuela horrelaxe dio.

Halakoak medio, bosgarren ikasturte hau zeharo erabakigarria gertatu zen Jon Gotzonen-tzat. «*Vasconum linguam discere*» erabaki zuen: «Ikusirik irri egiten zitzaiola euskal arazoari eta euskaldunak eurak lotsatuta legez isilik, minduta, erabaki hauxe hartu nuen: euskaldunen hizkuntza ikastea». (Ex., 89-VII-VIII).

Esan eta egin, heldu zion esaniko bideari: «Gurasoengana gabonetan itzultzean, euskal gramatika baten bila hasi nintzen Bilbon, *Gramática Vasca* deitua, Pablo Zamarriparena,



Santurtzi herria Jon Gotzonen haurtzaroan, xx. mendearen aurren aldera



Gasteizko seminarioan 7 urte egin zituen Etxebarriak: 2 latineko, 3 filosofiako eta 2 teologiako

bilatu nahi nuen liburu-dendetan; lehenago seminarioan ikusia neukan. Toki guztietan erantzun bera jasotzen nuen: *Método Autodidáctico para el Estudio del Vascuence* baizik ez zutela. Hoberen iritzi nion, ez bainuen besterik aurkitzen. Erosi eta etxerako bidean ekin nion lehen ikasgaiari». (Ex., 89, VII-VIII). Gasteizen izan zituen ikaskide euskaldun zaharrek esan digutenez, eurok ere euskaraz jardun zezaten gogor egiten omen zien, eta etxeko euskara alfabetatzen zezaten eta euskal testuak irakur zitzaten bultzatzen egiten.

J.A. Arana Martijak jakin zuenez, «Ikasle ona omen zen, gehien bat gramatika eta latin ikasketetan. Latinezko klasikoak irakurri eta ondo meneratu zituen orduan. Grekoa ez horrenbeste, berak esan zidanez; Federiko Krutwig-ekin “Jakintza Baita” akademian hobetu zuen zekiena».

Etsaiak kideen artean (1956)

Gasteizko seminarioan Humanitateen laugarren eta bosgarrena egin ondoren, Filosofia-ko hiru urteak eta Teologiako lehen biak egin zituen. Hauen azken biak eginez gero, apaiz bihurtuko zen, baina ez zen horrela gertatu: utzi egiten du bertan behera 1956an. Badirudi lehenago Orixerekin gertatua gertatzen dela Jon Gotzonekin ere. Izan ere, biok apaizgorako bokaziodunak izan arren, nagusiek ez dituztela begi eta estimazio onez ikusten, eta bizitza zibilera itzultzen dira biok.

Gasteizen euskal hizkuntza eta euskal arazoez arduratua ari zela, kideen aldetik isekak eta gorrotoak pairatu zituen. «Enrike Abianek, Gasteizen ikaskide ginela, euskaldunen auziari gorroto ziona, gaztetan izan zuen

Seminarioko lagunekin, Jon Gotzon lehen leerroaren erdian eta atzean bere ezkerretara Julen Kaltzada eta Martin Orbe



traumarengatik, diotenez, kalez ninjoan honi irri egin nahi izan zidan, zioztalarik: “Beldur diot liburu bakarreko gizonari”». (Ex., 89, 6).

Oroitzapen gaiztoz dakar paperera, baita ere, José Luis Ciordia ikaskidea. Eztabaidaren batean, hots egin omen zion: «Ez diot bat ere utilitaterik ikusten hizkuntza honi ikasia izan dadin». (Ex., 89, VII-VIII).

Ez ditu ahantziko, ezta ere, José María C. eta Javier R. de A. Okerki, Aldaya zeritzan batek, Aldaregia deitura hartu nahi zuela eta, JMC horrek esan omen zien: «*Ecce homunculus iste, qui nomen vasconicum vult imponere sibi*»: «Hona gizontto hau, bere buruari euskal ize-na ezarri nahi dion hau», deitura biok euskaldun direla kargutu barik. (Egitan, seminariotan sartzean, Aldaya idatzi zuten paperetan. Oker zegoela eta, Aldaregia jarri zuten).

JMC. horren kide zen R. de A.-ri «Alias El Pollo» deitzen dio, eta bioi «Carmina Amatoria» ize-neko poema irrigarria opesten (Ex., 89, XI). Behin bisitan joan zitzaizkion senideek oilasko bat eraman omen zioten, garaiko ikaskideek esan digutenez: kideei konbiterik egin gabe, isil-isilean, berak bakarrik irentsi omen zuen, eta horregatik «Alias El Pollo» goitizena.

Jon Gotzon eta gainetiko euskaldunentzat Gasteizko egotaldia benetan jasanezina gertatu zitzaian: «Ingurutzen gintuzten guztiek gorrotoa zieten euskaldunei, euskarari, eta ez zuten tarterik galtzen gu iraintzeko». (Ex., 89, V).

Lehen idatziak eta irakasle (1956-1960)

Argitara ematen duen lehen artikulua «Oargiren Batzaldia» izan liteke, 1955ean. Hiru urte geroago, 1958an, «Haize errota», «Barkartadean», «Jaungoikoari», «Aberriari», eta «Adiskideari» *Karmelen*, *Dirauket* izengoitiaz, eta «Ama», «Pozaren pozez», aldizkari berean, 1959an; «Ituna», «A. Machado Zelaia», «Gabirel'i», «Maitearen ondoan» eta «Zerbait» *Olertin*, 1959an. Idazten eta argitaratzen hasteko, Bilboko San Antongo parrokoa zen Klaudio Gallastegirengan aurkitu zuen Jon Gotzonek babes. San Antongo Katekesiaren lege-laguntzarekin argitaratu zituen 1965etik aurrera klasikoen itzulpenak, euskal klasikoez ikerketak, erlijiozko gaiak, hiztegiak eta euskara ikasteko materialak. Don Klaudioaren editorial hau «aventura quijotesca en la que encontré un colaborador extraordinario, José Ángel Etxebarria, euskaldunberri zanturzano, con dominio poco común en las lenguas clásicas, y que alumbró docenas de folletos en los que se complacía en traducir y presentar en versiones bilingües a Virgilio y Horacio» esan ohi zuen don Klaudiok berak.

Latina eta grekoa irakasten ari izan zen hurrengo urteetan Algortan eta Bilbon, Atenea akademian. Orduan ezagutu zuen Arana Martijak, 1957an, Verdes-Atxirikaren liburu-dendan. Jon Gotzon, euskarazko liburuak erostera joaten zen eta, salgai zeudenak eta

ezkutuan gordetzen zituztenak. Orixe zen orduan Jon Gotzonen eredu latinaren gramatika eta joskera aztertzeke euskara on baten bidean.

Garai honetan, mekanografia aldetik aurreratu egiten da: «Ikusi daikenez idaz-makiña lortu dot, ekiñaren ekiñaz.» diotso Santurtzitik, 60.VIII.6an, Aita Onaindiari. Era berean, latin-literatura klasikoa itzultzearen babilioaz ere zeharo kargutua dabil: «Martial'en ziri-bertsoak euskereraz jantzi dodaz eta bertsoan [...]», eta militantzia azkarrean dihardu: «Laster bialduko dautsot beste BERTSOLARIAK'en diru-pilloa», esaten dio Santurtzitik, 65.VIII.8an Onaindia horri.



Jon Gotzon, neba-arrebekin eta amarekin

Gaixorik (1961)

Jon Gotzonek berak dioskunez, «Bizitzako goraberak beartuta, nerbioak osatzeko» Mondragoeko gaixo-etxean egiten du egotaldi bat. Hemen, orrialde hunkigarria idazten du, oso-osoa ematen duguna:

«Mondragoe'ko zoro-etxea»

Zeruko Argiaren irakurleen artean gutxi jakingo dute nolakoa dan zoro-etxe bat barrutik. Oraintxe noakie esaten alik argien eta laburren.

Bizitzako goraberak beartuta, nerbioak osatzeko araxe eraman nitun nere ezurrak eta azala, orain iru urtetsu dirala. Apaiz gazte bat, adiskide zintzoa dudana M'tar Ander, lagun nula. Ate nagusiaren aurrean baratz eder-zabala, lorez eta belar goxoz ongi apainduta. Oitura danez, lenbiziko bi egunak gelatik irten gabe eman nitun. Artu bear nitun pastillak eta inyezioak (gogortze utsak lauorritan jartzen nau) ixiltzen noa. Ez dezazutela iñoiz olakorik probatu bear, otoi. Irugarren egunerako asi nintzan ibiltoki zabal batera jatsitzen. A ikuskizun negargarria! Adiñeko gizonak eta mutil gazteak batetik bestera gelditu gabe, noraezean, marmarka, deadarka, parrezka ta bakar-izketan, soiñeko zatarrez estalduta. Billa zazu or lagun egoki bat, txo, datoza egunetarako! Geroago egonlekuz aldatu ninduen. Jantoki estu baten danak batera, osagaiak eta konpontzerik etzutenak. Egutero launa «peninsular» ematen zizkiguten bazkal-ondoan. Dutzak, danak gela batean.



Gaixorik, «Mondragoe'ko zoro-etxean»

Alboko patio batean zoroenak ugelez-eta lotuta. Zaitzailleak, noizean bein, ur-aga battegaz jarraitu oi zieten, zoro gaixoekin jolastutzeko. Gizon-itxurarik ere etzuten gaizo aiek. Abereak bezela ibiltzen ziran. Irurak aldean sukalde-ondoko leio batetik askaria saltzen zuten dirua zutenentzat. Gauza itunagorik! Guk mats-aleak jan-ala beste batzuk ibiltzen ziran lurrean aztraka ondakiñak jateko. A zer nolako begirakune itzalak botatzen zizkiguten, eskuetan txokolate edo ogi-zati bat ikusi ezkerro! Iluntzean oeratu-orduan ezin kendu burutik eguneko irudi ta ikusitako gauza itsusiak. Aingeru Jagolea,

nolako lana eman bear izan nizun egun aietan! Azkenean aurkitu nun lagun zintzo bat: Aramaio'ko baserritar jatorra. Lukas izenekoa, gero bertan il zana. Jaungoikozale ta euskaltzale benetakoa. Ta zer esanik ez, ordenako lekaide bat edo beste gurekin pelota-jokuan aritzen zana.

Bai mundu ikasgarria zoro-etxe batekoa! Danetik zegon an. Iñartziarren tripak jaten zebillen gizon zirtzila. Irudi lizunak egiten ziardun urtetan aurreratua. Lagun-urkoai kalte egiteko beti aitzaki-billa zebillen gazte lotsagabea. Bere ganorabako izketaldiaz danak aspertuta zitun leloa. Andita-

sun-ametsetan galdutakoa. Ta besteak bezela lur-azalean ibilliaz aztuta ez gelditzearren, zugatz-puntaraiño Elizaren zuzendu-bearraz itz egiten igoten zan beste ura. Gutxi gorabera, gure munduan bezela. Izatekotan an alde auxe dago: zoroak an ez dutela iñor usteltzen beren zorakeriakaz.

Benetan giro zapalgarria gizon zentzudun batentzat. Dana-dala, dana etzan galtzea izan. Antxe irakurri nun lekaide batek utzi zidan idaztian, Gertrudis G. de Avellandeda'k Gernika'ko Arbolari egindako olerkia. Antxe ezagutu nun lenbiziko aldiz lengo «Umien Deia», «Goiz-Argi», alboko ardanategi neskaitilla euskaltzale amorratua ta

antxe bakarrik entzun nitun nere biritza guztian entzun ditudan maittezko itz gozoe-nak; andrazkoen zoro-etxeko kapellauak, Isasa'tar Zeperin jaunak, ezagutu ta berealaxe jalki zizkidan Paul Deunarenak: «*Diligentibus Deum omnia cooperantur in bonum*». (Erromakoei, 8-28).

(Pasarte hau ezagutzen dutenek esan digute-nez, Zeperin hau andoaindarra zen. Urnietan apaiz zela, gerrakoan atxilotu, Ondarretan, Gasteizko Seminarioan eta Angoston espetxeratu, Bizkaiko Arantzazu, Kortezubi eta Lemoiza urrundu eta Santa Agedako kapelautzan bukatu zuen).



Harri eta Herri dela eta, Arestirekin eztabaidan

Batuzaleekin eztabaidan

uskara batuaren auziarekin topo egiten duenean, zertxobait albo batera jartzzen dela esango genuke, edo, behintzat, kritiko. Hasteko Arestiren *Harri eta Herri* kritikatzan du, dioelarik:

Harri eta Herri izeneko poema argitaratu barriak egundoko zalaparta itzala atara dau uri onetako euskaltzaleen artean. Txoko guztietan euskaltzaleen iruzkiñak etengabeak dira. Kritikak, bai aldekoak, bai aurkakoak, ez dira falta. Baten batek beste poema txiki batez egin dautso kritika Kuliska Sortako oneri. Egu-



Euskaltzaindiko batzarrean Juanjo Zarretaren ondoan

neroko esamesak egillearen inguruan dabilz. Giro ederra dago gure uri nagusian. Bere elermenez «eskola» egin ei dau idazleak. Laster agertuko dau beste gazte batek poema barri bat, izen onegaz: «Arro ta Ero»... ta biraorik gabe.

Aresti 1975ean hil dadinean, ordea, jarraiko «Aresti Euskal Argiña» poema hau eskaintzen dio:

Euskal Arri gogorraren
langintzan Argin setati,
biotz-mailluak batera
zenituan erabili.

Erio ankerrak bere
altzo illunera eraman
zaitu, oraindik eskua
gora zendula aidean.

Zure maillu-otsa ixil
dan arren, bebil biotza
gure lagun, leun dezagun
gure Arri landu-gaitza.

Euskaltzain urgazle (1966-1970)

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1966ko azaroaren 25ean. Garai honetan harreman estua dauka Arana Martijarekin: «Orduan izan nituen nik berriz harremanak Jon Gotzonekin, Portugaleteko ikastola sortzeko asmoetan zebilenean. Urte berean sortu baitgenuen guk Gernikan Seber Altube Ikastola. Ikastoletako andereñoen aseguru pribatuaren ardura neraman eta hau izan zen lehen elkarrizketetako zioa».



Euskara batua dela eta Euskaltzaindian diren tirabiretan ere parte hartzen du, batuzale batzuk Lekuonaren jokaera salatuz argitaraturiko izenik gabeko agiri bat zela eta:

Sine Nomine latin ta guztiko goitizena-gaz ezagun dugu abestalde bat, EZ naiz



Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1966an

orain gogoratzen nungoa dan. Dana-dala, *Sine Nomine* oiek, abeslariok, ba-dute izena: *Sine Nomine*, urlia urikoak, alegia. Ba-dakite musikazaleak nun ta nolakoa dan abesbatz ori, agirian ari izaten bai da askotan.

Gaurko *sine nomine* auek, ordea, bestelakoak dituzu. Lekuona'tar Imanol apaiz eta Euskaltzaindi-nagusiari buruz kritika gogorra dagiten zortzi folio illun eta astun oien egileak. Neuri ere etorri zaizkit korreoz-eta.

Akats batzuek arkitu dizkiot, baiña; beren arrazoiketa arrazoizkoa ez izatea, leenengo. Bigarren, ikutzen dan gaiarentzat luzee-gi, aspergarri, izatea. Irugarren, Arantzazuko erabakiak arauzkeak, ez aginduzkoak izan zirala. Ta azkenik, auxe galdetzen diotela Lekuonari: esan dezala noren alde edo oldez jardun duan orrela. Salatu ta agirakaz zigortu bear zituala zorioneko erabaki aien pean makurtu ez diranak.

Bai? Zuek zuen taldea nungoa edo nolakoa dan agertu nai ez ta besteena argitu bear? Ta Euskaltzain-buru izandakoak talde ortakoak barrutiratu ez dituala agiraka zabilzate bere aurka? Ia, salatu dezala Euskaltzain-nagusi berriak (parkatu, arren, Aita Villasante biotz oneko ori) salatu ta onbideratu zaitzate, elelderrez, idaztankeraz eta gizalegez kanpora ibiltzea maite duzutenok! Zuen talde izkutu ta ezkatadun ori! Ia, noren edo zeren eragiñez zabilzen ola, buru-gordeka.

Sine NOMINE dirauzuten artean, nereztat, *sine HOMINE* ere zerate-ta.

Kintana eta Tovarrek «Zer deritzozu euskara batuari?» galdetzean, erantzun zien, labur: «Euskara batuari premiñazkoa deritzat. Batu-tzat zer ulertzen dan».

Excerpta (1986-1989)

Jon Gotzonek idatziriko lanik iraunkorrena berak bere eskuz 1986-1989 bitartean argitara ematen zuen *Excerpta* aldizkako kuadernoa izan daiteke. Gernikan datatzen dituen kuaderno hauen ardatz nagusia, geure ustez, greko-latindar klasikoen itzulpenak dira. María José Ansotegik *El Correo Español-El Pueblo Vascon* Gernikako «Erakusketa» iragartzean ematen ditu zenbait berri honetaz. «Su labor de traducción comenzó a través de la pequeña editorial-imprensa de San Antón, aunque una vez cerrada ésta, se ha decantado por el *off-set* a falta de mayor presupuesto. Su fuente de financiación se reduce

a pequeñas aportaciones del Gobierno vasco y mucho *tirar de bolsillo*.» Eta Jon Gotzonek esana hitzez hitz jaso zion: «Planteé el tema en Diputación, pero no quieren que figure el texto original antiguo al lado de la traducción en euskera y yo creo que es necesario para tener un punto de referencia, a la hora de hallar los matices exactos de un determinado vocablo o una frase concreta. Creo que las instituciones vascas no están muy mentalizadas y supongo también que tendrán cosas más importantes en las que ocuparse».

Hain hurbiletik ezagutu zuen Arana Martijak gogoratu du *Excerpta* hauen, eta gainetikoan,



Joxemari Larrarte eskuinean eta atzean Abel Muniategi dituela Euskaltzaindiko jardunaldietan

argitalpenaz: «[...] lanik mamitsuenak bere kontura eta berak inprimatuta eman zizkigun. Eman, gainera, zentzu zabalean, Euskaltzaindiko bileretan banatzen baitzizkigun kaleratutako liburuskak».

Asmo bertsuak zituztela eta, Jakintza-Baithakoei «*ego, quantum possum, adiuvere promisi*»: «nik, al dezakedanean, laguntza eskaini nien». (Ex, 87-III) irakurtzen diogu.

Jon Gotzonek berak dioenez, latina albo batera eta santurtziarrak eginikako itzulpena alboan argitara eman behar lirateke, berriz ere, gutxienez Katulo, Martzial, Horazio, *Carmina Burana*, Ovidio, T. Livio, Plinio G., Zizeron, Zesar eta Seneka.



Jose Antonio Retolaza lagun minarekin

Kazetari salatzailea (1970)

Anaitasuna aldizkarian, garaiko agintariak euskararekiko erakusten zuten jarrera zapaltzailea salatzen du: «Donostian Donosti, Gorostian gorosti», 70.IV.15eko portadan, Amotoko maisuak «No se habla en basco» (argazkia lekuko) idaztera ikasleak zigortzen zituelako.

«Zenbat holako!» 70.V.15ean, Bizkaiko Laukarizko eskolan «Escuela de Barriada de Vizcaya» delakoaren euskal ordaina «birrinduta eta ezabatuta» (argazkia lekuko) agertzen delako.

«Izenak hauzitan» *Anaitasuna* 70.X.15ean esandakoari «Eta gehiago» erantsi zion jarraiko hilabetean.

(Aldizkari honetan Imanol Berriatuak iragarritako «euskara batuan» eman zituen esaniko lan horiek).



Zentsurarekin auzia (1972)

Manuel Fraga Iribarneren Información y Turismo ministerioak, Bilboko Gran Vía 17an zeukan Bizkaiko delegaritza. J. A. Zarzalejos jaunak delegatu-kargua uztean, F. Ramos Díez izendatu zuten delegatu berri. Jon Gotzonek «Censura Previa» hartara bere libururen bat —ez du esaten zein— aurkeztean, Ramos jaunak deitu egin omen zuen, eta esan: «[...] que en el prólogo del libro hacía apología del terrorismo y me iban a hacer un juicio».

Eskatu dio Jon Gotzonek itzulpena erakusteko, erakutsi ere egiten dio eta dena atzekoz aurre itzulia, apropos bere ustez, ikusten du. Esaterako, hitzurrearen bukaeran *Euskertzaileak* ipini bazuen, erdarazko itzulpenean horrelaxe hasten zen: «a todos los amantes del vascuence...» eta gero aldaketa arriskuatsuagoak.

Jon Gotzonek ekin eta ekin ea nor zen itzultzailea. Hark ordea esan gura ez. Juzgadura joan gauza eta itzulpen bat egin zion azpimarratuta, euskarazkoa eta itzulpena ere bai eta zenbakiz adierazita zein hitz zetorren beste batekin, euskal hiperbatona dela eta.



Jon Gotzon, M.ª Pilar Cándida emaztearekin, Ainhoa alabarekin eta honen laguntzailearekin



Jon Gotzon, Ainhoa alabarekin eta amarekin Lurdesen

Onartu egin omen zioten juzgadian. Susmo zuen Jon Gotzonek nor zen itzultzaile hura eta itzelak esan zizkion beragatik Ramos horri... Efektua egin zuen. Bilbon zegoen ostatuz eta non diotson etxekoandreak apaiz giputz bat (ezaguna zuen berak eta) etorri zela beragatik galdezka. Madina izan bide zen apaiz hori, Abandoko Done Biken-diko koajutore eta Done Jakue katedraleko benefiziatu.

Deitu omen zion Ramosek Jon Gotzoni eta esan: «Bueno, ya veo que su traducción es correcta y entonces solo se incluye esa en el juzgado; así que la otra está donde tenía que estar, en la papelería».



Bermeoko ikastolako ikasle eta irakasle talde batekin, 1976an

Garaile behin, motor gainean (1973)

Kintana-Tovarrek eginiko elkarrizketan, «anekdotaren bat» galdetzean, honako hau diotse: «Igazko urtean ba-nator Ondarretatik Portugalete'ra motorrean. Oingo legez aztuta, okerreko bidetik sartzen naz eta kamiño nagusira eldutean ertzaiñak (udaltzainak) pii-pii! bazterrean gelditzeko agindu. Ni antxe lotuta. Ba-dator eta ez agurrik eta ez arrastionik; ba-diñost: "1.500 pesetas de multa por circular en dirección prohibida." Nik gizalegezko berbarik ez eustan zuzendu ta berba erdirik ez neutson erantzun denpora guztian. "A ver, los papeles de la moto." Ta nik eman. "Su documentación."

Ta nik eskuan ipiñi. Ta multa-txartela guztiz betetzeko: "domicilio", berak. Orduan nik "tarjeta de visita" hoietako bat eman. Bertan dan-dana euskera utsean egon. "¿Qué pone aquí?", berak. "Urrutizkiña", ta orixe berori ipiñi berak bere liburuxkan. Asten da tarjetari eragiten, buelta batera ta bestera. Jakiña, tutik ere ez eban ulertzen. Berriz, tarjeta eskuetan jiratzen, batetik eta bestetik begiratu ta azkenean ba-diñost legun-legun: "Oiga, mire, luego igual podemos tener alguna complicación y voy a romper la multa." Esan ta egin, lurrera bota ta lepoan goxokiro joaz: "Buen viaje, muchacho." Nik neureari jarraitu ta ezer esan barik, aurrera bidean».

Irakasle eta itzultzaile (1975-1983)

Ezkondu Bilbon egin zen, San Antonen, Pontevedrako San Salvador de Poion jaiotako María Pilar Cándida Prieto Filologian lizentziatuarekin, 1975eko abuztuaren 25ean. Urte horretan hasi zen ikasturtean, Jon Gotzon Gernikara doa, Seber Altube ikastolara maisu gisa. Emazteari euskara irakatsi eta galegoa ikasi zuen gure maisuak, gailegoz eskaintzen dio «Teño o peito» poema eta galegozko poetak itzultzeari ekin zion orduan. Ainhoa alaba 1976an jaio zitzaien: aitaren trazak erakusten ditu irri egiterakoan. Euskaltzaindira, Deustuko Unibertsitatera eta



Etxebarria, mendian talde batekin

abarretara bidaiatzean, ez omen zen inoiz itzultzen ama-alabentzako detailtxoren bat gabe. Ainhoa ttipi zenean, amak atzeratuen ardura zeukan eskolan, eta hainbat eta hainbat andrakila eskolara eramaten zituen: egun ere inoiz erreflexio eta eztabaidagai erabili ohi dutena, Ainhoa haurtxoa inoiz eskolatik iragatean, «andrakila horiek nireak dira!» hots egiten zuela eta... Ezkondu aurretik, hiru baldintza ipini zizkiola emazteari esan ohi zuen berak: inoiz dirutxoren bat hilabetearen bukaeran gainez bazuten, euskararen alde ere erabiliko zutela, erropatxoak erosten dena xahutu aurretik. Bigarrena, seme-alabarik izanez gero, euskal izena jarriko ziotela. Eta, azkena eta drastikoena: oherakoan zigarroa erretzeko ohitura zuela, eta ez ziola hori debekatuko!

Jon Gotzon Bermeoko ikastolara joan zen. Han eman zituen bederatzi urte, Gernikako institutura euskara eta euskal literatura irakastera itzuli arte (1984-1993). Bermeen zegoenean, Deustuko Unibertsitatean burutu zuen Euskal Filologiako lizenziatura (1978-1983) eta titulu horrek eman zion instituturako sarrera.

Zinegotzi Gernikako Udalean (1979)

ernikako Udalean zinegotzi hautatua izan zen 1979an, EAJren zerrendetan. Akta liburuan, Giza-Batzordeko agertzen da Jose Antonio Arana Martijarekin (HB) batean, Juan Jose Irazabalen lehendakaritzapean, eta 5. Teniente-Alkate.

Urte bereko uztailean, jarraiko eskari hau agertzen du:

Jon Gotzon Etxebarria Martin de-sea proponer el tema, en la próxima reunión del Ayuntamiento de Gernika, el día 27, viernes, del enterramiento que se hizo en el cemen-



Elurretan aita-alabak, PO matrikulak amaren sorterria adierazten du

terio municipal de los gudarís que al acabar la guerra fueron sacados de su tumba colectiva particular a terreno distinto y enterrados de forma colectiva masiva, donde yacen sin señal ni mención alguna hasta la fecha.

Gernika, 24.IV.79.

Eskari honek abuztuaren batean izan zuen «sarrera». Plenoan aurkeztu zenean, «En



Amak, beti bezala, argazkiak ateratzen dituen bitartean, aita.
Ainhoa alabarekin jolasean



Mendian neskatxa taldearekin

los expresados términos fue aprobada por unanimidad» irakur daiteke Akta liburuko 326an.

Ez zuen luzaroan, haatik, jardun, uztailean jarraiko eskutitz hau agertu baitzuen, gaztelaniaz eta euskaraz:

Agur, jauna:

Orainarte pozik jardun izan dot Udaletxean, Kontzejal moduan, al nebantxoa egiten.

Alabaina, emendik aurrera oso gatz egingo jat ezer onik egitea. Batetik nire eskola-lanak eta eskolen inguruko batzarrak. Bestetik Deustuko neure ikasketak. Guzti orrek denpora eta astiuneak betetzen daustaz guztiz.

Ikusten dodanez, bein ikastaroa asi ezker ezingo dot inolaz ere orko batzarretara agertu. Ori dala-ta obe deritzat beste bat neure ordezt ipintzeari, zuen Alderdiko kontzejalgaien zerrendan urrengo datorrena, alegia. Horrela lana ganoraz nork egin euki dagizuen.

Beste barik eta al dodanetan laguntzeko gertu.

Gernikan, 1.979.ko Uztailak 30.

Ontzat eman zitzaion irailean eskaria, eta Oskar Berasaluze Abiok hartu zuen bere ordezkaria.

Apaiz historiak latinez (1987-1989)

Gorago aitaturiko *Excerpta* hauetan bada atal berezi bat, «*De vita exemplarium presbyterorum vasconum*», latinez idatzia. Hasierakoan (87-VI) Jon Gurutz Ibartxiz dihardu, 1969an Basaurin hila: «*Hoc vico cognovi eum*»: «Herri honetantxe ezagutu nuen bera» dionez gero, izan zuen beronekin harremanik.

Hurren uztailean, Zirilo Arzubiagaz jardungo du. Izan zuen harremanik honekin ere: «[...] *cum cognovi eum, in conventu quodam sacerdotali curam exercens, iuxta Basilicam Virginis Begoña*»: «Ezagutu nuenean, apaiz komentu batean ziharduen arima-zain, Begoña Birjinarren Basilika ondoan».

Agorril-iraileko zenbakian, Eutikio Zulueta, Bizente Irasuegi eta Gorriño apaizak aurkeztu izan zizkietela Morcillo Bizkaiko elizba-

rruti berriko Gotzain berriari, Derioko abadegai berrirako irakasle gisa: hirurok bota omen zituen atzera, euskaltzale zirela eta. Eta bukatzen du: «*Multa alia dixit fecitque adversus vascones Morcillo episcopus*»: «Beste hainbat esan eta egin zituen euskaldunen aurka Morcillo gotzainak». (Bizkaiko Elizbarrutiaren historia egin dadinean, kontutan izatekoa artikulu hauxe, beronen informazioa Klaudio Gallastegirengandik jaso izan baitaiteke, eta jakin ere asko jakin baitzezakeen don Klaudiok).

Irailekoan Iñaki Olabeagaz dihardu, zeinarekin harreman handia izan zezakeen San Antongo parrokian.

Azarokoan, Jokin Zaitegiz ari da: «*Cum lokin Zaitegi presbyterum cognovi, erat in Biarritz editionem “Euzko Gogoa” nuncupatam parans*»: «lokin Zaitegi apaiza ezagutu nuenean, Biarritzen zen, “Euzko Gogoa” deritzonaren editatzea paratzen».



Jon Gotzonek harreman handia zuen aita Xanti Onandiarekin



Senitarteko ospakizun batean Etxebarria




Jon Gotzonen iritzian, euskaldunen aurkako
Casimiro Morcillo Bizkaiko lehen gotzaina, 1950-1955


Bilboko San Anton parrokiako don
Klaudio Gallastegi erretoreak asko
babestu zuen Jon Gotzon



Derioko seminaria. Txikiengat 54an zabaldu zen; handientzat, 56an



Lanpeturik dagoelako utzi
egiten du Etxebarriak Gemikako
zinegotzigoa, 1979an



Jon Gotzon
Etxebarriaren sinadura

Abendukoan, J. M. Iruretagoienaz, beronen azken urteak Santurtzin eman zituena, Jon Gotzonek Gasteizko seminariotik samurtasunez oroitzen duena.

1988ko urtarrilean, luzeagoxe jardungo du don Klaudio Gallastegiz, «*homo magnus, corpore et anima*»: «gizon handi, gorpuz eta ari-maz». Bilbo hiriko San Anton parrokian, eliz hitzaldiak euskaraz egiteari ekiten dio, nahiz eta beste zenbait klerigok, intelektualen itxurako jarrera hartu eta hiritarren hizkuntza gaztelania dela esan, eta ez baserriarren rustizitatea: «*Quare istius linguae rusticitas in urbem afferenda?*»: «Zertarako ekarri hizkuntza horren rustizitatea hirira?». Don Klaudio honek eman omen zuen lehen meza euskaraz, «*sicut Concilium Vaticanum Secundum disposuit*»: «Vatikano Bigarren Kontzilioak erabaki legez». (Egiatan Jose Antonio Retolaza izan omen zen, nahiz eta don Klaudio parrokoaren jurisdikziopean).

Gorosarriz jardun ondoren, Gotzon Garitainandia aitatzten du martxoan. Urdulizko seme hau, apaiz egin aurretik ezagutu zuen. Eliza eta munduaren maitale legez agertzen du.

Apirilekoan, berriz ere Morcilloz (lehenago toki txarrean utzi zuela eta norbaitek idatzi izan diolako).

Maiatzean, Dueñasko apaizen kartzelan hil zen J. T. Izurategi bilbotarraz, don Klaudio Gallastegik idatziriko *Amets eta Egi* liburuari jarraiki.

Uztail-agorrrilekoan, luzaz dihardu Gabriel Manterolaz, eta beronek Mateo Mujika goztainarekin kartaz izaniko harremanaz eta euskal apaizek gerratean agerturiko jarreraz lekuko aberatsak diren eskutitzak jasoaz.

Irailekoan, *Historia de Vizcaya contada para los niños de las escuela de Vizcaya* eta *Bethlehem, poema en verso latino* idatzi izan zuen Z. Mingolarraz.

Urrian, Jose Sagarna historiatzen du, sail honetako orrialderik landuena eta hunkigarriena jasoaz: «*iuvenis sacerdos in vico dicto Larruskain aprehensus posteaque occisus est*»: «Larruskain deritzon herritxoan izan zen atzemana apaiz gaztea eta jarraian eraila». 60ko hamarkadan, apaiz gazte hau eraila izan zen tokian «*prodigia*» zenbait gertatu omen ziren, jendea bisitan hara joan ohi zen, eta Guardia Zibilak herria hartu ere. Jon Gotzonek, baina, nahiago izan duela haren bertute eta heriotza krudelaz hitz egin esanez amaitzen du.

1989ko urtarrilean, Azkuez dihardu. Ez dirudi Jon Gotzonek berak Azkue ezagutu zuenik eta Alfonso Irigoienengandik ikasiez baliatzen da. Hiru arrazoigatik da lekeitiarra miresgarri: humanitate, pietate eta jakituria handiko da.

Klerigo hauek euskaltzaleak ziren, gerratean hilak edota gerraostean erbesteratuak zaharren gehienok. (Ez dugu, haatik, horren berririk Iruretagoienaren kasuan). Guztion historiak irakurri ahala, Jon Gotzonek euren modukoa izan nahi zuela oso argi agertzen delakoan gaude.

Erakusketa (1989)

Gernika hirian Jon Gotzonen lanekin erakusketa bat egin izan zen, 1989ko azaro-abenduan, Jose Antonio Martijak aurkezturik Erakusketaren lagungarri, jarraiko pregoi interresgarri hau zabaldu zen:

Europa-ko hizkuntza landu guztietan badituzte Grezia eta Erromako idazle klasikoak edizio ugari-bikainak: edizio kritikoak hizkuntza originalen; aldamenean itzulpen zehatza da-



Gernikan egin zen erakusketa hau, 1989ko azaro-abenduan

kartenak; itzulpen soilak; antologia jakingarriak eta abar. Gizadiaren nondik norakoa ulertzeko ezinbestekoa zaigu antxinakoek ibilitako bideak ezagutzea. Eta zer esanik ez, pentsamenduaren historiarako eta aurrerakuntzarako, gaurkoenaz gain, antxinakoek pentsamoldea ere ezagutzea guztiz beharrezkoa egiten zaio gaurko gizonari. Horregatik badituzte esandako edizioez gainera, arlo hortan diharduten kultura-erakundeak. As-

kotan laguntza ofiziala dutelarik. Aurrerapen teknikoarekin batera naziorik gehienak aurrerapen humanistikoaren arloan bereziki nabarmentzen dira. Gure artean, aldiz, aspaldiko amets eta ekinek (gogoratu Bidegarai baten edo Sara-ko Etxeberri baten saioak) ez dute jarraipenik izan, merezi zuen neurrikorik ez behintzat. Gerra aurrean zertxobait orduko aldizkarietan eta kito. Geroago Zaitegi-k urratu zuen bidea poliki. Zoritxarrez hura hilez gero, dena bertan behera geratu zen. Eta Platon-en haren itzulpen bikaina erdizka baizik ez digute eman: zatika eta grekozko originalerik gabe. Zaitegi-k bere egunetan dirurik ezaz euskara hutsean atera behar izan zituen Sophokles-enak eta.

Garai berrietan, eta hobegoetan, sarturik gaudela, ez dirudi arazo honi konponbiderik emango zaionik. Beraz, ahalegin eta ekintza partikularretan jarri behar gure itxaropen guztia.

Nola edo hala, bideak zabaldu guraz, edo zabal eragin asmoz, hemen dator ekintza berria:

Behintzat Institutoetako eta Unibertsitateko ikasleentzako materialak prestatzeko asmoz, irakurle jakingurakoak alde batera utzi gabe, noski, hor doaz ale txikietan klasiko batzuren eleder-lanak hizkuntza bietan, zenbait ohar jakingarriz hornidurik.

Badakigu gitxi dela, nahiz eta egileak hortan jarraitzeko borondatea erakutsi. Hala ere apur honi nondik edo handik lan osotua goak gehituko zaizkiolakoan, gaurko euskaltzale eta jakinzalenzako liburuska sorta hau eskaini nahi du, kulturarentzako mese-degarri izango delako uste osoan.

Heriotza (1996)

Arteriosklerosi gaixoak jo zuen 1984an. Bartsutuko ospitalean egin zioten ebakuntza bat 1990ean, lur jota gelditu zelarik. Bihotzeko mina ere bazeukan eta ondorioz asko zaindu beharra. Baina hala eta guztiz ere Euskaltzaindiaren bileretara joateko beti zegoen prest. Literatura batzordeko kidea zen eta Azkue Biblioteka batzordekidea ere (1987), Arana Martijak idatzi duenez.

Heriotza-agiriak dioenez, Karlos Gangoiti 5ean, hil zen 1996ko otsailaren 17ko, 12.00etan, «Parada cardíaca (causa inmediata)», «Infarto de Miocardio (causa fundamental)» delakoagatik. DNI, n.º 16.126.384 zeraman. Elizkizun deian, aldiz: «Galdakaoko Ospitalean, 62 urte zituela. Hiletak eta gorpuaurrengo meza: igandean, hillak 18, Gernikako Andra Mari parrokian. Oharra: Meza ondoren Gorpua Errigoitiko kanposantura eroango da. I. Z. Uribe» irakur daiteke.



Euskaraz eta latinez idatzi zuen Jon Gotzonek. Itzulpenak, berriz, latinetik eta grekotik egin zituen, batez ere

Bitoriano Gandiagak goraipatua (1990)

Behin, 1990 edo aurretxoko ostiral santuko arratsalde batez, Bitoriano Gandiagak galde egiten dio Juan Antonio Arana Martijari non bizi den Jon Gotzon Etxebarria. Badoaz biok, etxeko txirrina jo eta Jon Gotzon atean agertu denean, txaloka ekiten dio Gandiagak honako hau esanez: «Pelotariak, bertsolariak eta abarrek jendearen txaloak hartzen dituzte gure plazetan. Zuri ez dizu inork halakorik egin eta hemen natorkizu zor zaizun txalo hau eskaintzera». «Gandiagarekin batera —bukatzen du Arana Martijak— guk ere txalo bero bat zor diogula Jon Gotzon Etxebarriari uste dut. Hala biz.»



Gernikako bere etxearen aurrean, Euskadiko Kutxa Lankide Aurrezkia zenean

Jon Gotzonen poema bat

Zure agurra

Egun luzeko ekin-bearrak
soiñez ta gogoz aulduta,
ustekabeen zure ondotik
pasa naz, biotz minduta.

Zure aurpegi alai-gozoak
biotz-barnea leunkiro
igortzi daust ta indarra emon
bideari jarraitzeko.

Nere biziko bakartadean
zure agur samur ori
gogo-ortzean josita daukat
ordu illunen gozagarri.



Foru herriko pilotaleku marraztuan alabarekin

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Pilar Prieto emazteari
- Ainhoa Etxebarria alabari
- Euskaltzaindiko Antonio Arana Martijari eta Josune Olabarriari
- Gernikako Udalari

Liburu erabilienak

- ANSOTEGI, María José: «Un profesor de Gernika traduce los clásicos al euskera: “euskaldunizar” a Cicerón», in *El Correo Español*, (1989), XII.10.
- ARANA MARTIJA, José Antonio: «Jon Gotzon Etxebarria Martin», in *Euskera*, (1996-1-2), 421-424.
- BASALDUA, R.: «Jon Gotzon Etxebarriaren omenez», in *Akatz*. Bermeo 1996.
- CAMPILLO, Marivi: «Un libro editado íntegramente en latín, recoge la vida de veinte sacerdotes vascos», in *El Correo Español*, (1989), X.17.
- KINTANA, Xabier eta TOBAR, Joseba: *Euskaldun Berriekin Euskaraz*. Bilbao, 1975.
- LAINOPE: «Gernika liburuetan. Jon Gotzon Etxebarria», in *Aldaba XXV*. (1987).

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2005eko abendua
Ale-kopurua:	3.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2375-8 (Lan osoarena) 84-457-2376-6
L.G.:	BI - 3288-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística